

# Lorategian

PARAISO ANTZERKIA

THÉÂTRE DE LA GUIMBARDE



# Haurtxoak eta Antzerkia

“Haurtxoak eta Antzerkia”. Bi hitz horiek atsegin ditugu, bata bestearen alboan. Asoziazio horrek harritu egin gintuen, eta hainbat gai planteatu zizkigun. Europako antzerki jaialdietan, hainbat emanalditan, parte hartu genuenean ezagutu genuen aktorearen eta txikiaren artean egon daitekeen trukaketa hunkigarri eta liluragarria.

Urtebete eta hiru urte arteko txikiak dira benetako publikoa, nahiz eta ikuskizuna gugandik, helduogandik desberdin ikusi. Horiek gorputzarekin behatzen dute, zentzu guztiekin, bihotzarekin eta lehen sentipen horietatik eta horien lagungarri diren zirraretatik abiatuta osatzen dute irudimenezko mundua.

Bizitzaren hasieran daudela kontuan hartuta, hurrek lehen aldiz ezagutzen dituzte gauzak; hori dela eta, jakin-min handia izan ohi dute eta ezagutzen duten hori handiagotzeko sentimendua nagusitzen zaie. Txikienek, mundua ezagutzeko desira horretan, adierazpen artistiko guztien hasieran daude. Ibiltzeko oreka bilatu nahirik, dantzatu egiten dute. Zentzuekin jolastuz, musikarekin egiten dute topo. Material bat miatuz, motrizitate eta zentzumenarekin topatzen dira.

Gure lanarekin, bizitzara eta Artera zabal daitezen lagundu nahi dugu, horiekin gehien gustatzen zaiguna elkarbanatuz: Antzerkia.







# Lorategian

Hurtzarotik, haurrak irudien munduan murgilduta egoten dira, nahiz eta gehietan modu pasiboan egin. Gure lorategian, antzerkia, bideoa, itzalak eta marrazkiak nahasten dira ikusleei jolas-ikusmen eta ikusmen aktibo bizipena proposatzeko.

*“Lorategian eseritako emakume bat ametsetan dabil. Gizon bat iritsi, eta irudien munduan bidaia egitera gonbidatu du. Elkarrekin, zuhaitzen arteko oihala topatu dute, eta oihala hori orri txuri bihurtuko da irudiak sortu eta eraldatzeko... jolastu eta zirrarak agertu beharrean”.*

Ikuskizunaren arintasunak olerki unibertso batetara eramaten gaitu, bertan umeei konfidantzaz eta harriduraz mugitzen direlarik.



# Lorategian

*Teatro Paraíso Antzerkiaren eta Belgikako Guimbarde Antzerkiaren arteko koprodukzioa,  
urte 1 eta 3 urte arteko haurrei zuzenduta.*

**Interpretariak**

Rosa A. García Sardón

Alberto Mtz. Guinaldo

**Muntaia Teknikaria**

Javier García

**Espazio eszenikoa eta jantziak**

Elisabeth Schnell

**Harmailak**

Fred Houtteman

**Bideoa**

Marc Cerfontaine

**Marrazkiak**

Alberto Mtz. Guinaldo

**Musika**

Olivier Bilquin

**Argiztapena eta Soinua**

Fred Houtteman

**Textos en euskera**

Rosa A. García Sardón


**Egileak**

Charlotte Fallon

Rosa A. García Sardón

**Zuzendaritza**

Charlotte Fallon





## TEATRO PARAÍSO

Abetxuko Pueblo 8B · 01013 Vitoria-Gasteiz  
Tfno: 0034 945 289 323 · Fax: 0034 945 269 184  
Móvil: 0034 609 477 403  
E-mail: [info@teatroparaiso.com](mailto:info@teatroparaiso.com)

Laguntzaileak:



Educación y Cultura

Cultura 2000



KULTURA SAHA  
DEPARTAMENTOS DE CULTURA



FEDERATION  
WALLONIE-BRUXELLES

